

LURPEKOEN KANTA

Zetaren laztana ahaztu dezagun. Urrearen distira alfernik egun. Gure jantziarik dotoreenak, apaingaririk preziosuenaik ezere gutxi dira inguru honetan. Arropa guztiak daude soberan, ez hotz eta ez bero ilunpe honetan. Zafiro, diamante, harri bitxiak, piztien larriak garestienak traba besterik ez ditute hemen egingo honez gero. Diru zaigu pisu eta astun orain. Bete oporretan.

EZIN ESAN

Mintzo leun, elai eta zelu, zertan zaude uzkur egun? Trakets, zurrun, dudati eta makur, berriatu inoiz eta gaur mutu. Hitzak orain nekez datoz, motel, ilun, nekatu antzo. Janioa, aspaldi agortuta, ez da entzungo atzera. Ezpainetan loratu izan zena zapuztu zuen denborak.

ARGIAREN ETORRERA

Mozorroa eronko da bat-batean plaza erdian, ezkutuan ibili ohi denak bere eskuak ditu gordeko. Badator argia, erne denok badator argia. Nekatu joan da alkohola, hitz antzuak hiriblatzera. Ezpainetan oraindik irauingo mila musu zoroen zauriak.

ASMAKIZUNA

Inoiz gertatu ez, bera ezagutu arte. Nola sumatu halakorik? Eta orain berriz, gogoan dut beti, nola libratuko naiz ni? Deitu, deitu nahi bezala. Izen ugari omen du. Jakin, ondo dakit hor dela nonbait, nahiz eta ez kusi. Egunez zeli gauze, alboan dut erne. Da al zaidari hobek? Triste edo pozik, alai edo urduri niretzat bera de aski. Utziko ote nau, joango da inoiz, zer egingo nuke bera gabe? Bete nirekin dago, beti alboan daukat.

GAUR EZ

Hogea hamabost urtez lanera zirtzo joan da eta gaur, ez daki nola, zera erabaki du: Gaur bera ez doa. Ez gaur, ez doa. Gaur ohean geratu da egun osoan. Lagunak etorniko zaizko, zergatik? galdetuko diote. Mutu geratuko da eta bihar gauza bera esanen du. Gaur bera ez doa lanera, nahiz eta ero deitu. Gaur ohean geratu da egun osoan.


IPURZURI

Gure arteko liskarrek ez dira atzokak, aspaldian hasi ginen elkarri jipoika. Jotzen nauzu, jotzen zaitut, elkar jotzen dugu. Kalpeak dauzkagu orain laztan gozoenak. Ipurzuri. Sarritan alageinduti eta ezin inoiz lortu, oinezaren lokarriak etenkitzak dira. Minaren dela ozena da, erresistentsia, entzun orduko bagozak bere kostaldertan. Ipurzuri, dio leloak, Ipurzuri, hirian barna.

IZUEN MORROI

Buru kaskoan sartuz gero, bertan zaizkigu laketuko. Ohartu aurretik betirako, guregan tinko errotuko. Beren morroiak, besterik ez omen gara gu, itzalen pare orpoz orpo dabilz-ki. Minaren minez

sortu eta samin gorritan bizi behar. Deusen gainetik penatzen maita omen dugu guk gehiena. Oinazearen ispluan geure burua ikusita, bizi gertatu oraindik jabetzen gara harrituta.



BURUTIK HAGO

Laga egingo haudala pentsatzen baldin badun, oso oker hagoela, zurr egon haiteke. Zer egingo nuke nik ene ondoan ez bahintz, ez uste halakorik bestela esango dinat: burutik hago. Bera ez lasai egin lo, ametas gaitzirik gabe, bestela ondo dakin zer esan behar dudan. Burutik hago. Egin lo, egin lo lasai. Halako gauzak esan ohi dira damutzeko berehala. Etorri eta joan, joan eta etorri, basterik ez ibilidea. Betiko nahi dugun hori doakigu agudoen.

BIHARAMUNA

Hona hemen berri bokarrik kitarra eskutuan. Eguzkia kanpoan jabi, luna barnuan. Ez du laguntzen botlak, alferrik tiburu, ez da pasatzen denbora, bizitza gelditu da, Dena mutu, lotan dena sargorio betean. Egarriz, buruko minez, biharamun latza. Non da atzo bihotza xuxurleitzen zena, musuak eta laztan-kan ametsak ote dira?

ABERRI GALDUA

Horra hor ez oso aspaldi herri bat zena. orain berriz, noraezen ibiltzen dena. Sorleku utzi bere atzean, basamortuan barna politikoa. Etorniko ei da egun handia. Etorniko ei da liberdadea. Nahiz eta una eskatu inguru haletan, zela berde bana daukate bihotz-bihotzean. Noizbait hara heldu, helduko dira. Noizbait beren ametsak beteko dira. Zeinu guztek argi diote, datorrela, laster datorrela. Hemen da odola errekan eta sasiak sutan daude, erre gabe.

ZILDAREN DEJA

Asko dira arriskuak, asko oztopoak, ziur zaudela-koan, horra ezustea. Beldur naiz horregatik eroniko ota naizen, edozein egunetan zirriktatu eta blaust. Erori, erori hondoraino. Zuhur izan nahi eta beti aldrebasa, ametsa gozoak labur luze galzetoak. Zuloaren deia entzun eta nola erresistitu? Behingoa jautzi egin eta horren behera noa. Erori, erori hondoraino.

NEGUALDIA

Eguna argitu orduko bilakatzen da gaua. Ilunak dena estali. Kanpoan haizeak ero jotzen ditu bazterrak kupidagabe eta lazki. Zure ondora bilduko naiz negu hasieran, ez zaitut utziko udaberri artean. Kaleko zaretak oro mutusarazi elurrak, geldigabeki erori. Hotza baino ezin espero negu beltzeak gauan, izotza nonnahi nagusi. Hori agintzen dizut, hori besterik ez, txoriak hegatan behar du.

ZUGAN GOGOA

Ebatak urrun nagolla herbeste mingarrian inguruan dudan oro hotza eta goibela, ezezagunetz beteta kale eta tabernak, arrotza zaidan erdera ulertu ezinean. Zugan gogoa. Serritan geratzen naiz paretari begira, noiz ikusiko zaitudun behin eta berriz galdezka, horrela egoten naiz luze, dena naiz oitrimina, maliko mingots bakar batek lausotu arte doa. Zugan gogoa.



URTEBETETZEA

Gaur bezaleko egun batez errepikatzen da urtero, baten bat albora etorri eta, zonionek, esaten dit. Bizirik nago eta ezin sinetsi. Bizirik nago eta ez da gutxi. Bizirik nago gonak pasata. Zonionekoa naiz noski, inautea ez omen da gutxi, egunero gorpu artean ibili behar duenarentzat. Bizirik nago.

BIZITZA NOLA BADOAN

Gure amaren esnea garatza omen da, bular bete etsipen gure esperon. Mundura jaito aurretik hoston da negarra, azken hata ertio isilduko ez dena. Eta badoa, azkar doa. Badoa, bizitza doa. Zoriontasun apurrik are niminoena, garesti izango zaigu bizi bitartean. Samina dugu ordaina joko alu honetan, kartak banatu aurretik gaitzaleak gara. Aha!egin borroetan beti, barregarriak. Sator itasunen baino itsuagoak.

Xabier Montoia **Beti Oporretan**

